

ZIZUR NAGUSIKO UDAL MUSIKA ESKOLAN EMANDAKO IKASTAROETAN IZENA EMATEGATIK ETA PARTE HARTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUEN ARAUA

Oinarria

1. artikulua- Ordainarazpen hau Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Legearen Bigarren Ataleko Bigarren Azpiataleko III. Kapituluko Lehen Tituluan xedatutakoaren arabera eta lege horren 28. artikuluan jasotako baimenaren arabera ezartzen da.

Sortzapena

2. artikulua- Ikastaroetan izena ematen den unean sortzen da ordaintzeko betebeharra, eta ikastaroetan parte hartuko dutenek ordaindu beharko dute.

Kudeaketa eta diru-bilketako arauak

3. artikulua- Musika Eskola erabiltzeagatik ordaindutako prezio publikoak matrikula barne hartzen du, hau da, ikastaroaren prezio osoaren % 20a eta urteko kuota, hiruhilekoa izango dena.

Matrikularen prezioa osorik ordainduko da ekainean, matrikula egiten den unean.

Ikastaroaren urteko kuotaren zenbatekoa zatikako hiru ordainketatan ordainduko da (tarifaren 1/3), banku-helbideratzearen bidez (matrikulatutako pertsonak matrikula egitean adierazi beharko duten banku-kontuan): lehena matrikulazio-unean (ekainean), bigarrena urtarrilean eta hirugarrena martxoan.

Musika Elkartean eta/edo Informatikan bakarrik matrikulatzen diren ikasleek matrikularen prezioa eta urteko kuota ordainketa bakarrean ordainduko dituzte ekainean.

Epe horiek amaitu eta prezioa ordaindu ez bada, plaza galdu egingo da, betearazpen-bidetik zenbatekoa erreklamatzeari kalterik egin gabe.

4. artikulua- Udalak ikastaroa bertan behera uzten duenean bakarrik itzuliko da ordaindutako prezioa.

Ikasleek beren borondatez baja hartzen badute, ikastetxearen barne-araudian ezarritakoaren arabera jokatuko da.

Urteko kuotaren zatikako hiru ordainketei dagokienez, honako data hauek ezartzen dira bajetarako:

- Ikasturte bakoitzeko irailaren 1a baino lehenagoko borondatezko baja bada, matrikularen zenbatekoa eta ekainean egindako lehen ordainketari dagokion kuota ez dira itzuli beharko.
- Abenduaren 15a baino lehenagoko borondatezko baja; urteko kuotaren bigarren eta hirugarren ordainketak ez dira egingo.

- Otsailaren 15a baino lehenagoko borondatezko baja bada, urteko kuotaren hirugarren ordainketa ez da egingo.

5. artikulua- 1.-Aplikatu beharreko tarifak arau honen Eranskinean agertzen direnak izango dira eta, hala badagokie, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren (BEZ) kuota barne hartuko dute.

2.- Ikasturtea hasi ondoren musika-eskolan hasten diren ikasleek matrikula osoa eta ikastaroaren urteko kuota ordainduko dituzte, ikasturtea amaitzeko falta diren hilabeteen proportzioan, matrikula egiten den hilabetea barne.

3.- Tokiko Gobernu Batzarraren esku uzten da prezio publikoaren tarifak ezartzea, Musika Eskolaren Udal Patronatuak proposatuta.

6. artikulua- Arau honetako tarifen Eranskineko II. epigrafean jasotako murrizketak aplikatu nahi dituzten eskatzaileek honako hauek aurkeztu beharko dituzte nahitaez:

- a) Familia ugariengatiko murrizketarako, familia ugariaren titulua, maiatzaren 18ko 6/2005 Foru Legeak aldatutako martxoaren 25eko familia ugarien 20/2003 Foru Legeak ezartzen duen definizioaren arabera.
- b) Guraso bakarreko familien murrizketarako, guraso bakarreko familiaren titulua, Nafarroako Foru Komunitatean guraso bakarreko familiak egiaztatzeko otsailaren 7ko 5/2019 Foru Legeak ezartzen duen definizioaren eta erregulazioaren arabera.
- c) Diru-sarreraren murrizketen kasuan, Gizarteratzeko Errentaren ebazpena edo ordezkotako prestazio bermatua.
- d) Desgaitasunagatik eskatutako murrizketarako, % 33ko edo hortik gorako desgaitasun-mailaren kalifikazioa jasotzen duen dokumentu ofiziala.

Zizur Nagusian erroldatutako ikasleek soilik baliatu ahal izango dituzte murrizketa horiek.

7. artikulua- II. epigrafean ezarritako murrizketak urteko kuotari aplikatuko zaizkio, eta inoiz ez matrikula-kontzeptuari dagokion zenbatekoari

Murrizketa horiek ezin izango dira metatu kontzeptu bat baino gehiagorengatik murrizketarako eskubidea badago, eta ikasleak entregatutako dokumentazioari dagokion murrizketa aplikatuko da.

8. artikulua- Arau-hausteei eta zehapenei dagokienez, Zizur Nagusiko Udalaren Zerga Ordenantza Orokorrean xedatutakoa beteko da.

AZKEN XEDAPENA

Arau honetan aurreikusten ez denerako, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea eta Zizur Nagusiko Udalaren Zerga Ordenantza Orokorra aplikatuko dira.

Nafarroako Aldizkari Ofizialean testu osoa argitaratu ondoren jarriko da indarrean zerga-arau hau, eta ondorio juridiko guztiak izanen ditu.

TARIFEN ERANSKINA

I. EPIGRAFEA- 2024/2025 IKASTURTERAKO PREZIO PUBLIKOAK

		Zizur Nagusian erroldatutako ikasleak		Zizur Nagusian erroldatuta <u>EZ</u> dauden ikasleak	
		Matrikula	Urteko kuota	Matrikula	Urteko kuota
HASTAPENA	4 eta 5 urte (ordu 1)	40,72 euro	162,89 euro	61,09 euro	244,34 euro
	6 eta 7 urte (2 ordu)	72,08 euro	288,32 euro	108,10 euro	432,41 euro
MUSIKA-IRAKASKUNTZA	Musika-tresna 1	123,55 euro	494,21 euro	185,33 euro	741,33 euro
	2 musika-tresna	190,81 euro	763,22 euro	286,21 euro	1.144,86 euro
SOILIK MUSIKA-ELKARTEA		18,57 euro	74,28 euro	18,57 euro	74,28 euro
MUSIKA-INFORMATIKAKO IKASTAROA	Musika-eskolan matrikulatutako ikaslea	20,63 euro	82,50 euro	20,63 euro	82,50 euro
	Musika-eskolan matrikulatu <u>ez</u> den ikaslea	30,95 euro	123,80 euro	30,95 euro	123,80 euro

Ordainagiriak itzultzean sortutako gastuak kobratuko dira.

II. EPIGRAFEA- MURRIZKETAK

Hobariak

II.1 Familia moten arabera:

- Maila orokorreko familia ugaria eta/edo guraso bakarreko familia izateagatik % 50
- Maila bereziko familia ugaria izateagatik % 100

II.2.- Diru-sarreraren arabera:

- Gizarteratzeko errenta edo prestazio bermatua jasotzea % 100

III. 3.- Desgaitasunagatik:

- Legez aitortutako desgaitasuna, %33koa edo hortik gorakoa % 50
- Legez aitortutako desgaitasuna, %65etik gorakoa % 100